# 2020

**OINARRIAK**

BASES

**XXXVII.**
**IPUIN LEHIAKETA**

CONCURSO DE CUENTOS

# GABRIEL ARESTI



Bilbao

1. Bilboko Udalak **GABRIEL ARESTI IPUIN LEHIAKETAREN XXXVII.** edizioaren deialdia egin du.

2. Nazionalitate eta leku guztietako idazleek har dezakete parte, 18 urtetik gorakoak badira.

3. Modalitate bi jarri dira: euskarazkoa eta gaztelaniazkoa. Modalitate biotako batera aurkez daiteke obra bakoitza.

   Era berean, gaztelaniazko modalitatean, egile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du. Egile batek lan bi edo gehiago aurkezten baditu, jasotzen den lehena baino ez da lehiaketan onartuko.

4. Lanak originalak izango dira, argitaratu gabeak eta argitaratzekotan, aipatu beharreko inolako sari edo accesit lortu ez dutenak. Baldintza horiek guztiak epaia eman arte bete behar dituzte aurkezten diren lanek. Hizkuntza modalitate batera aurkezten diren lanak beste hizkuntza batetik itzulitakoak badira, ez dira originaltzat joko. Idazleek argitaratu gabeko edo saritu gabeko lanak izateko baldintzari dagokionez, lana entregatu ostean, aldaketak gertatuz gero, horien berri eman beharko diote epaimahaiari.

5. Lanen luzera gehienez hamabost orrikoa izango da, DIN A-4 motako orrietan idatziak, Times New Roman edo antzeko letra-mota erabilita eta hauen tamaina 12 izanik. 1,5eko espazioa utziko da lerroen artean.

6. Lanak udalaren web-orriaren bidez aurkeztu beharko dira:

   - www.bilbao.eus/concursoaresti
   - www.bilbao.eus/arestilehiaketa, euskaraz.

   Egileak bere datuekin bete beharko du inprimakia eta lana PDF formatuan erantsi beharko du. Bere izena ez da agertuko, ezta egilea nor den jakiteko moduko beren beregiko azalpenik ere, dokumentuko orri batean ere.

7. Lanak aurkezteko epea **2020ko urtarrilaren 15ean** hasiko da eta **2020ko martxoaren 30ean** amaituko da.

8. Literatura-arloko zenbait adituk osatuko dituzte modalitate bakoitzeko epaimahaia. Epaimahaiok oinarri hauek interpretatu ahal izango dituzte beharrezkoa bada, baita eurek jarduteko arauak finkatu ere. Sariak emateko edota, behar denean, eman gabe uzteko ahalmen osoa izango dute epaimahaiek. Epaimahaiaren erabakia ezin izango da eztabaidatu.

   Edonola ere, epaimahaikideek lanen egileak nortzuk diren jakin gabe lanak baloratzea bermatuko du lehiaketa honen antolatzaileak.

9. Saritutakoek eurek joan beharko dute sari-banaketaren ekitaldira, horretarako jarriko den tokian, egunean; eta orduan eta hauek ezinezkoa balute bertaratzea, ordezkoa bidaliko lukete. Sariak banatzeko ekitaldia **2020ko azken hiruhilekoan** izango da.

   Epaia Bilboko Udalaren webgunean argitaratuko da: **www.bilbao.eus**

10. Bilboko Udalak bere gain hartzen ditu saritutako lanen ustiapen eskubideak, emandako sariaz gain ezer ordaindu barik, saria bera izango baita egingo den ordainketa bakarra eta osoa; horretarako egileek hitzematen dute:

    a. Saritutako lanak argitaratzeko, banatzeko eta salgai jartzeko eskubideak lurralde muga barik eta legez ezarritako gehieneko eperako lagatzen dituztela, merkaturatze-sistema eta argitaratze-mota eta euskarri guztietarako. Lagapen hori Bilboko Udalari egingo zaio, epaia ematen denetik hasi eta urte biko eperako.

    b. Bilboko Udalari eskumena ematen diotela, bere kabuz edota argitaletxe pribatu zein publiko batekin egindako hitzarmenaren bidez, egoki deritzon argitalpenak egiteko. Argitalpen bakoitzeko ale-kopurua ere erabakiko du.

    c. Bilboko Udalari eskumena ematen diotela saritutako lanak beste hizkuntza batzuetara itzultzeko, jatorrizko hizkuntzakoak ustiatzeko eta erabiltzeko dituzten eskubide berberekin.

11. Edozelan ere, saritutako lanak Bilboko Udalak esku hartu barik argitaratuz gero, hizki deigarrietan agertu beharko dute zein sari jaso duten.

12. 3.500 € gordineko sari bana eta 1.750 € gordineko accesit bina egongo dira euskarazko eta gaztelaniazko modalitateetan. Diru-kopuru horri dagozkion atxikipenak egingo zaizkio, indarrean dauden arauen arabera (Espainiar estatuko egoiliarrentzat Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta atzerriko egoiliarrentzat Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga).

13. Lehiaketa honetan parte hartzeak arauok osorik onartzen direla esan gura du. Oinarrietan araututa ez dagoenerako, ordezko izaeraz, Bilboko Udalaren eta zuzenbide publikoko

bere erakundeen eta entitateen deialdiaren bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra aplikatuko da. Bilboko Udalak 2016ko ekainaren 30ean onartu zuen ordenantza hori eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2016ko uztailaren 20ko 138 zenbakian argitaratu zen.

**IRABAZLEEI ORDAINKETAK EGITEKO OHARRAK**

**Sari nagusia** irabazten dutenek Estatu espainiarreko lurraldean badute egoitza fiskala, sariaren emandako aurretik, honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

a. Beren beregi ematen diola Bilboko Udalari BAIMENA egiazta dezan Udalarekin ez daukala zorrik. Era berean, beren beregi ematen dio Udalari baimena Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ez daukala zorrik egiazta dezan (Bestela, Foru Ogasuneko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu) (emango zaien ereduaren arabera).

b. Erantzukizunezko adierazpena, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 24-2. artikuluak ezartzen dituzten debekuetako bat ere ez duela adierazten duena (emango zaien ereduaren arabera).

c. Bilboko Udalaren aldetik, kontzeptua edozein izanda ere, inoiz ordainketarik jaso ez dutelako Hartzekodunen Erregistroan inskribatuta agertzen ez diren pertsonek, "Hartzekodunen Fitxa" behar bezala beteta aurkeztu beharko dute (emango zaien ereduaren arabera). Horrekin batera NAN/IFZ/pasaportea eta dirua sartuko den banku-kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen edozein agiri ere aurkeztu beharko dituzte.

Edozein sarik irabazten duenak, egoitza fiskala atzerrian badu, a) ataleko dokumentazioa aurkeztu beharrean, "Egoitza Fiskalaren Ziurtagiria", egoitza duen nazioan eskumena duen agintariak egina aurkeztu beharko du.

**Accesit bat lortzen dutenek,** Estatu espainiarrean egoitza fiskala badute, honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

a. Erantzukizunpeko adierazpen bat, zeinaren bidez ziurtatuko baitu ez dela aurkitzen Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren (38/2003) 13. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen (4/2005) 24.2 artikuluan onuradun izateko aurreikusitako debekuetan. Era berean, ziurtatuko du diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokarraren Arautegia onartu zuen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 18. eta 19. artikuluan ezarritakoa betez, betetzen dituela zerga-arloko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak (emango zaien ereduaren arabera).

b. Bilboko Udalaren aldetik, kontzeptua edozein izanda ere, inoiz ordainketarik jaso ez dutelako Hartzekodunen Erregistroan inskribatuta agertzen ez diren pertsonek, "Hartzekodunen Fitxa" behar bezala beteta aurkeztu beharko dute (emango zaien ereduaren arabera). Horrekin batera NAN/IFZ/pasaportea eta dirua sartuko den banku-kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen edozein agiri ere aurkeztu beharko dituzte.

**Accesit bat lortzen dutenek** egoitza fiskala atzerrian badu:

a. "Egoitza Fiskalaren Ziurtagiria", egoitza duen nazioan eskumena duen agintariak egina.

b. Erantzukizunpeko adierazpen bat, zeinaren bidez ziurtatuko baitu ez dela aurkitzen Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren (38/2003) 13. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen (4/2005) 24.2 artikuluan onuradun izateko aurreikusitako debekuetan (emango zaien ereduaren arabera).

c. Bilboko Udalaren aldetik, kontzeptua edozein izanda ere, inoiz ordainketarik jaso ez dutelako Hartzekodunen Erregistroan inskribatuta agertzen ez diren pertsonek, "Hartzekodunen Fitxa" behar bezala beteta aurkeztu beharko dute (emango zaien ereduaren arabera). Horrekin batera NAN/IFZ/pasaportea eta dirua sartuko den banku-kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen edozein agiri ere aurkeztu beharko dituzte.

Bilbon, 2020ko urtarrilean

1. El Ayuntamiento de Bilbao convoca la **XXXVII edición del CONCURSO DE CUENTOS GABRIEL ARESTI.**

2. Podrán concurrir autoras y autores de cualquier nacionalidad o lugar de residencia, mayores de 18 años.

3. Se establecen dos modalidades lingüísticas, euskera y castellano, pudiendo cada obra presentarse únicamente a una de las dos modalidades.

   Asimismo, en la modalidad de castellano, cada autor solo podrá presentar una única obra. Caso de que un mismo autor presentara dos o más obras, solo se considerará admitida al concurso la primera que se reciba.

4. Las obras serán originales e inéditas, no habiendo sido premiadas en otros certámenes ni obteniendo accésits que obliguen a mencionar dicha circunstancia en caso de publicación (requisitos todos ellos exigibles hasta el momento del fallo). No se admiten como originales obras traducidas de lengua distinta a la modalidad a la que se opta. Los autores o autoras están obligados a comunicar a la organización cualquier cambio respecto al carácter inédito y no premiado de su trabajo, que se produzca con posterioridad a su entrega.

5. Las obras tendrán una extensión no superior a quince folios (normalizados formato DIN A-4 tipo de letra Times New Roman o equivalente, tamaño de letra 12), transcritos a 1,5 espacio.

6. Las obras se presentarán a través de la página web municipal:

   - www.bilbao.eus/concursoaresti
   - www.bilbao.eus/arestilehiaketa, en euskera.

   La autora o autor deberá:

   - rellenar correctamente el formulario con sus datos;
   - y adjuntar la obra en formato PDF, sin que conste su identidad, ni ninguna referencia explícita a datos de los que pueda deducirse claramente la autoría, en ninguna de las páginas de dicho documento.

7. El plazo de recepción comenzará **15 de enero de 2020** y finalizará el próximo **30 de marzo de 2020.**

8. El jurado, uno para cada modalidad lingüística, estará constituido por personalidades del ámbito literario; podrá interpretar las presentes bases cuando resulte necesario, determinar sus normas de funcionamiento y ostentarán las máximas facultades en orden al otorgamiento de los premios o declararlos, en su caso, desiertos. El fallo del jurado será inapelable.

   En todo caso, la organización del presente concurso garantizará que los miembros del jurado juzguen las obras sin conocer los autores o autoras de las mismas.

9. Las personas premiadas deberán asistir personalmente, o mediante representante caso de resultarles imposible, al acto de entrega de premios en el lugar, fecha y hora que se señale a tal efecto. Dicho acto se celebrará en el **último trimestre de 2020.**

   El fallo se hará asimismo público en la página web del Ayuntamiento de Bilbao: **www.bilbao.eus**

10. El Ayuntamiento de Bilbao se reserva los derechos de explotación de las obras premiadas sin pago adicional alguno al de la propia cuantía del premio, constituyendo este la única y total remuneración, conviniendo sus autoras o autores a tales efectos a:

    a. Ceder por el plazo máximo establecido legalmente, sin límite territorial y para cualquiera de los posibles sistemas de comercialización, modalidades y soportes de edición, los derechos de reproducción, distribución y venta de las obras premiada. Esta cesión será en exclusiva para el Ayuntamiento de Bilbao durante el plazo de dos años a partir del fallo.

    b. Facultar al Ayuntamiento para la realización, por sí mismo mediante convenio con el servicio editorial público o privado que él elija, de cuantas ediciones considere oportunas, y con el número de ejemplares que en cada una de ellas decida libremente.

    c. Facultar al Ayuntamiento para la traducción de los relatos a otros idiomas, con los mismos derechos de explotación y uso que los relatos en la lengua original.

11. En todo caso, la publicación al margen del Ayuntamiento de los trabajos premiados, deberá ir acompañada de la mención, en caracteres relevantes, del premio obtenido.

12. La dotación del premio es de 3.500 € brutos y dos accésits de 1.750 € brutos, para cada una de las modalidades (euskera y castellano) del concurso. A esa cantidad, en su caso, se le efectuarán las retenciones fiscales que resulten obligatorias en virtud de la normativa fiscal vigente (Impuesto

sobre la Renta de las Personas Físicas para residentes en el Estado español o Impuesto sobre la Renta de no Residentes para residentes en el extranjero).

13. El hecho de participar en la convocatoria supone la íntegra aceptación de estas Bases. En lo no previsto en estas Bases regirá con carácter supletorio la "Ordenanza general reguladora de las Bases para la concesión de subvenciones mediante Convocatoria por el Ayuntamiento de Bilbao y sus organismos y entidades de derecho público", aprobada en fecha 30 de junio de 2016 por el Excmo. Ayuntamiento Pleno y publicada en el BOB nº 138, de 20 de julio de 2016.

**ESPECIFICACIONES PARA PODER REALIZAR LOS PAGOS A LAS PERSONAS GANADORAS**

**Las personas que obtengan el premio principal,** si tienen residencia fiscal en territorio del Estado español, deberán aportar, con carácter previo a la concesión, la siguiente documentación:

a. La AUTORIZACIÓN expresa al Ayuntamiento de Bilbao para que compruebe que la entidad no tiene deudas con este ayuntamiento, así como a comprobar si está al corriente de sus obligaciones fiscales y con la Seguridad Social (en caso contrario, deberá aportar en papel los certificados de Hacienda Foral y de la Tesorería General de la Seguridad Social) (según modelo que se les facilitará).

b. Una "Declaración responsable" de no estar incursa en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria prevista en el art. 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones, ni en la prevista en el art. 24-2º de la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres (según modelo que se les facilitará).

c. Si no han recibido nunca un pago del Ayuntamiento de Bilbao por cualquier concepto y, por lo tanto, no figuran inscritas en el Registro municipal de Acreedores deberán presentar, debidamente cumplimentada, la "Ficha de Acreedores" (según modelo que se les facilitará) a la que se le adjuntará el DNI/NIF/Pasaporte, y cualquier documento por el que quede acreditada la titularidad de la cuenta bancaria donde deba realizarse el ingreso.

En el caso de que la persona que obtuviera el premio tuviera residencia fiscal en el extranjero, deberá aportar, en vez de la autorización requerida en el apartado a), el "certificado de residencia fiscal" emitido por la autoridad competente de su país de residencia.

**Las personas que obtengan un accésit,** si tienen residencia fiscal en territorio del Estado español, deberán aportar:

a. Declaración responsable de no estar incursa en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria prevista en el art. 13 de la ley 38/2003, General de Subvenciones, ni en la prevista en el art. 24-2º de la ley 4/2005 para la igualdad de mujeres y hombres; así como que cumple con las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social exigidos en los art. 18 y 19 del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 30/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (según modelo que se les facilitará).

b. Si no han recibido nunca un pago del Ayuntamiento de Bilbao por cualquier concepto y, por lo tanto, no figuran inscritas en el Registro municipal de Acreedores deberán presentar, debidamente cumplimentada, la "Ficha de Acreedores" (según modelo que se les facilitará) a la que se le adjuntará el DNI/NIF/Pasaporte, y cualquier documento por el que quede acreditada la titularidad de la cuenta bancaria donde deba realizarse el ingreso.

En el caso de que la persona que obtuviera el accésit tuviera residencia fiscal en el extranjero, deberá aportar:

a. El certificado de residencia fiscal emitido por la autoridad competente de su país de residencia.

b. La declaración responsable de no estar incursa en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria prevista en el art. 13 de la ley 38/2003, General de Subvenciones, ni en la prevista en el art. 24-2º de la ley 4/2005 para la igualdad de mujeres y hombres (según modelo que se les facilitará).

c. Si no han recibido nunca un pago del Ayuntamiento de Bilbao por cualquier concepto y, por lo tanto, no figuran inscritas en el Registro municipal de Acreedores deberán presentar, debidamente cumplimentada, la "Ficha de Acreedores" (según modelo que se les facilitará) a la que se le adjuntará el DNI/NIF/Pasaporte, y cualquier documento por el que quede acreditada la titularidad de la cuenta bancaria donde deba realizarse el ingreso.

Bilbao, enero de 2020



**BILBOKO UDALA**
AYUNTAMIENTO DE BILBAO

BK Bidebarrieta Kulturgunea

Bilbao